



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José Iparraguirre Altamira
Eusebio Elizalde Mariezcurrena
María Cristina Apezteguia Saldias
Teresa Miqueo Gamio
Francisco Javier Alchu Iparraguirre
José M^a Gorosterrazu Elizalde

2009ko irailaren 24ean, arratsaldeko 13tan, Iturengo Herriko Etxean, legez egindako deialdiaren ondorioz, Aparteko Biltzarrean elkartzen dira ondoan aipatzen diren zinegotziak. Iharduneko Alkatea den, José M^a Gorosterrazu Elizalderen lehendakaritzapean, eta idazkaria den, Miguel José Belarra Tellechearen aitzinean, Gai Zerrendan sarturik dauden gai hauek aztertzen dira:

1. ALKATEAREN HAUTAKETA.

Miguel Angel Petrirena Azpiazu, Alkatea zena, 2009ko irailaren 15ean hil zela ikusirik, Toki Entitateko Erregimen Juridikoa, Funtzionamendu eta Antolakuntza Erregelamenduko 40.5 artikulua xedatzen duena eta ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 eta 198. artikuluei jarraituz, idazkariak gogorazi ditu alkatea aukeratzeko baldintzak:

- “Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai; kasu honetan, Alkatea zegoen zerrendan bere atzetik joaten zena, kandidaturari uko egiten ez badio”.
- “Lehen bozketan, zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate”.
- “Horrela gertatzen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate”.
- “Gehien bozkatutako zerrenda bat baino gehiago bada, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate”.

Horrela bada, José Iparraguirre Altamira zinegotzia, Eusko Alkartasuna talde politikokoko zerrendan bigarrena delarik, izango da kandidatu bakarra. Iparraguirre Jn.ak uko egin dio kandidaturari.

Gero, María Cristina Apezteguia Saldias zinegotzia, Eusko Alkartasuna talde politikokoko zerrendan hirugarrena delarik, izango da kandidatua. Apezteguia And.ak uko egin dio kandidaturari.

Segidan, Francisco Javier Alchu Iparraguirre zinegotzia, Eusko Alkartasuna talde politikokoko zerrendan laugarrena delarik, izango da kandidatua. Alchu Jn.ak uko egin dio kandidaturari.

Ondorioz, José María Gorosterrazu Elizalde zinegotzia, Eusko Alkartasuna talde politikokoko zerrendan bosgarrena delarik, izango da kandidatua. Jarraian, isilpeko bozketari ekin zaio, eta hona lortutako botoak: José María Gorosterrazu Elizalde zinegotziak, 6 boto. Beraz, José María Gorosterrazu Elizalde alkate hautatu dute.

Ondoren, José María Gorosterrazu Elizaldek onartu egin du alkate izatea. Udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, José María Gorosterrazu Elizaldek hartu egin du alkate-kargua.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Alkate Jn.ak hitz batzuk esan ondoren, arratsaldeko 1 t'erdia direnean, bilkura amaitutzat eman du, eta nik neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.